

1999ko MARTXOAREN 10eko URJENTZIZKO BILKURA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzi martxoaren hamarrean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziak ez dira agertu, nahiz eta jakinean egon, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, gai hau erabili delarik:

URJENTZIZKO GAIA

Alkateak, Kutzako Batzar Orokorreko Ordezkararen Izendapen berria egiteko deia, atzo iritsi zela esan du eta presa haundiko gaia denez eta hurrengo baterako uzterik ez dagoenez, bilkura honetan urjentziz tratatzea proposatu du.

Proposamena aho batez onartua izan da.

KUTXAKO BATZAR OROKORREKO ORDEZKARIAREN IZENDAPEN BERRIA

Lizartza, Lezo, Oiartzun, Zaldibia, Amezketan, Usurbil eta Anoetako Udalak, herri txiki gisa sortu eta atera zitezkeen arazo eta proposamenak Kutzako Batzar Orokorrean eramateko, ordezkariaz izendatu genuen Jose Antonio Urkiola Cuni jauna, duela bi urte. Nahiz eta hasiera batetan eragozpenik jarri ez, Urkiola jaunren lana zenbait agintariri gehiegi ez zitzazion gustatu, eta bateraezintasun kasu bat atereaz kalean utzi zuten.

Hau guztia kontutan izanik, eta lanarekin ildo berdinarekin jarraitzeko ordezkoa izendatu beharrean aurkitu garenez, honako puntu hauek onartzeko eskatzen diogu Osoko Udal Batzarrari:

- 1.- Jose Antonio Urkiola Cuni jaunari, zazpi herri hauen izenean KUTXako Asanblada Orokorrean egin duen lanagatik eskerrak ematea.
- 2.- Herri txikien sentsibilitatea KUTXako Asanblada Orokorrean present egon dadin, JOSE MARI PEREZ BUSTERO jauna, NAN. 15.645.904 zenbakiduna, gure ordezkari berri gisa izendatzea.
- 3.- Erabaki honen berri, KUTXako Batzorde Eragileari ematea.

Kutxako Batzar Orokorreko Ordezkariaren Izendapen Berriaren proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko bederatzit'erdiak direnean.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du,